

IV. PAZKO IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 eraman gaitzazu zeruko atseginen jabe izatera,
 fededunen artalde apala irits dadin,
 beronen artzaina den Kristo iritsi den lekuraino.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 4, 8-12

Ez dugu beste salbatzailerik.

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan zuen: «Herriko agintari eta zaharrok, entzun: sendatu den gaixo hau dela eta, honen sendatzea nondikakoa izan den galdetzen diguzue; jakizue, bada, zuek denok eta Israel herri guztiak, zuek gurutziltzatu eta Jaungoikoak hilen artetik piztu duen Nazaretoko Jesu Kristoren izenean daukazuela gizon hau zeuen aurrean sendaturik. Jesus da zuek "etxegileok baztertu duzuen harria, baina orain giltzarri egina dago". Ez dugu beste salbatzailerik; eta ez zaigu eman gizakioi eguzkipean beste izenik, gu salba gaitzakeenik».

ERANTZUN SALMOA: Sal 117, 1 eta 8-9. 21-23. 26 eta 28-29

**R/. Etxegileek baztertutako harria,
 berori gertatu da giltzarria.**

Edota: **Aleluia.**

Eskerrak Jaunari, ona baita,
 Haren maitasuna betikoa baita.
 Hobe da Jaunagana biltzea,
 eta ez gizakiengan uste on izatea;
 hobe da Jaunagana biltzea,
 eta ez haundizkiengan uste on izatea. R/.

Eskerrak Zuri, entzun nauzulako,
 salbamen gertatu zatzaizkidalako.
 Etxegileek baztertutako harria,
 berori gertatu da giltzarria.
 Jaunak egin du hori,
 gure begien harrigarri. R/.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,
 bedeinkatzen zaituztegu Jaunaren etxean.
 Zu zara nire Jainko, eskerrak ematen dizkizut;

ene Jainko, goستن zaitut.
Eskerrak Jaunari, ona baita,
Haren maitasuna betikoa baita. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Jn 3, 1-2

Den bezalakoa ikusiko dugu Jainkoa.

San Joan Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok:
Begira zenbaterainoko maitasuna
agertu digun Aitak:
Jaungoikoaren seme nahiz alaba izena daramagu,
baita izana ere.
Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen,
Jainkoa ere ezagutu ez zuelako.
Senide maiteok, orain Jaungoikoaren seme-alaba gara;
gero izango garena, oraindik ez da ageri.
Badakigu, Jauna agertzen denean,
Haren antzeko izango garela,
den bezalakoa ikusiko baitugu.

EBANJELIOA: Jn 10, 11-18

Aleluia: Jn 10, 14

R/. Aleluia.
V/. Ni naiz artzain ona –dio Jaunak–;
ezagutzen ditut neure ardiak,
eta neureek ezagutzen naute Ni. R/.

Artzain onak bere bizia ematen du ardiengatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien farisearrei: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardiengatik. Morroiak, ordea, artzain ez denak, ardiak bereak ez dituenak, ikusten du otsoa etortzen eta, ardiak utzita, ihes egiten du; otsoak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu; morroiari ez baitzaio axolarik ardiengatik.

Ni naiz artzain ona; ezagutzen ditut neure ardiak, eta neurek ezagutzen naute Ni; Aitak Ni ezagutzen nauen bezala, eta berdin Nik Aita; gainera neure bizia ematen dut Nik ardiengatik. Baditut, artegi honetakoak ez diren beste ardi batzuk; haiek ere erakarri beharrak dauzkate; adituko dute nire ahotsa, eta artalde bakarria izango da, eta artzain bakarria.

Aitak horregatik maite nau: nire bizia ematen dudalako, berriro hartzeko. Ez dit inork kentzen: Neuk ematen dut neure gogoz. Nire esku dago, bizia ematea; eta nire esku, berriro hartzea: agindu hau hartu dut nire Aitarengandik».

Oparigaien gainekoa

Pazko sakramentu honek, Jauna, gure erospena berritzen du;
hartzazu gure esker ona, eta iguzu,
opari hau beti poz iturri izan dakigula.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

Jaunartze ondorengoa

Artzain ona zaren Jainko Jauna,
zaindu ezazu maitasunez zeure artaldea;
eta eraman betiko larre gurietara
zeure Semearen odolaz salbatu dituzun ardiak.
Errege bizi baita.